




Iñeroko aldizkingi ede gafiduna

Aita Kaputxinoak zuzendua

:—: || VI Urtea || 1924'ko Garagarila || 66 Zenbakia || :—:

GURE GOTZAIAREN ITZ GOGORAGARIK



GURE Obispo jauna Iruñaratzean aurkeztu genion **Zeruko Argia** ta **Irugarengo Prantzisko'taia** ta oiek euskerazkoak zirala ikustean esan zigun, pozik ikusiko zituala.

Orain etofri zaigu ordea, bere eskuz egiñik, lotsaz betetzen gaituan eskutitz pozkafi au:

Lu'reko argirik onena, electricidadezko argia gure uri, eri, karika eta bideetan jartzen duten gizonak, eskeiak eta txaloak irabazirik dauzkate.

Baño zeruko argia, animaren bide sakonak, bide eta eskutapenak argitaratzen dituzten Jaungoikozko gizonak zer merezi dute?..... Per quam viam spargitur lux? ze bideetan bareatu eta zabaltzen da argia? galdetzen zuen Job igarleak.

Irakuri, kristauak, Zeruko Argia eta Irugarengo Prantziskotaia eta bide oren barena jua ezkeren bilatuko dezute egiazko argia, Jesukristo'ren dotriña, Jesukristo'ren grazia eta era berean lu'rean eta Zeruan betiko poz eta atsegintasuna.

† MATEO, IRUÑA'KO OBISPOAK

1924'ko Epailaren 22'an



Agiriko ta lagunarteko Agurketaz

Venite adoremus, et procidamus; et ploremus
ante Dominum qui fecit nos. (Ps. XCIV-6.)
Atozte agurtu, eta auzpeztu gaitezen; eta negar
egin dezagun egin genduzen Jaunaren aurrean.



AGURKETA zer dan, zenbat aldetara dan ta Jaungoikoari zor dioguna dala adirazi nizun k. m. orf azkenekoan.

Gaur nai nizuke, ordea, adirazi agurketa ori izan bear dala *agirikoa*, ez dela aski bafukoa edo bafengoa bakarik; eta gañera agiriko ori ere izan bear dala *lagunartekoa* eta *gizartean* ematen zaiona; eztela asko bakarka norberak emana.

Jaungoikoari agiriko agurketa ukatu nai dion asko da gaurko Negunean. orberak bere baitan, bere bafu (bafenbean) agur egitea naikoa dala diote erlijio gabe edo onen etsaiak, eta auekin batutzen diran kristau efaz askok.

Aingeruak ba-giña, gorputz-gabeak ba-giña, ondo litza-ke. Baño...

Entzun X-gafen Pio Aita Santuak ontaz diona:

G. Jaungoikoari biotz-bafuan bakarik agur egitea ez al da naikoa?

E. Ez jauna; ezta naikoa Jaungoikoari biotz-bafuan bakarik agur egitea (adoratzea) baizik beaferkkoa da agirian ere agur egitea gogoz eta gorputzez, bataren eta bestearen egile osoa ura dalako.»

Gizonaren izanerak eskatzen du agiriko agurketa ori.

Gizonak biotzean duana ezin bere bafuan (bafenen) luzaro izkutatu. Be-rez dario bafuko gogoraldi, asmo ta maitasuna agora, begietara, aurpegira ta bere izate guztira. Naiz maitetasuna, naiz gofotoa, naiz atsegiña, naiz atsekabea, bere begiratuan, itzetan eta agerbidetan azaltzen zaizkio; ta ori berezkoa du gizonak. Gorputzeko miñak bafua iluntzen dio ta bafuko ego-nera azalean nabaritzen zaio.

¿Zergatik izkutatu, ordea, Jauna ganako bere bafuko begiramentu, itzal,



JESUS'EN BIOTZAREN AGINDUAK

1. Nere Biotzari eskeñitako animai beren buruzpiderako laguntza bereziak emango dizkiet.
2. Beren etxekoai emango diet pakea.
3. Poztuko ditut beren naigabe guzietan.
4. Beren babesa (gerizua) ta estalpe egiazkoa izango natzaie bizi artean eta batez ere eriotz-orduan.
5. Bedeinkazio ugari ixuriko diet beren lanbide guzien gañera.
6. Erukitasunaren iturri ta itxaso azken gabea arkituko dute nere Biotzean pekatariak.
7. Anima epelak gartsu egingo dira.
8. Anima gartsuak laxter igoko dira ontasun aundira.
9. Nere Biotz Gorenaren iduria agirian iduki ta agurtuko duten etxeak bedeinkatuko ditut.
10. Biotzik gogofenak beratzeko grazia emango diotet Apaizei.
11. Jaiera (debozio) au zabaltzen dutenen izena nere Biotzean ezañirik idukiko dut eta beñere ezta kenduko berortatik.
12. Bederatzi ilabete lefo-lefoan lenengo ostiralean Jauna artutzen dutenai, nere Biotzaren maitetasun guzia dezakenak azkeneraño onean irautea emango diote.

gogo on, apal, maitetsua? Eta nai ta ere ote lezake gero? Aitari ondo nai dion aufak nola beti izkutatu maitetasun ori?

Jaunari gizonak dion itzala, begiramentu ta maitetasuna nola bañuan izkutatu, zertako bañenen estali? Zer edeñago ta egokiagorik Jaun oñen aũean beratzea, makurtzea, belaunikatzea ta gure ezerezkeria adiraztea baño?

Jaungoikoagan ez dula siñisten edo artaz etzaiola ajolik adirazten du aguriko agurketa (cultoa) ukatzen dionak.

* *

Guziok esan giñezaioke Jaunari, Dabid'ek esaten ziona: «zure eskuak egin ninduten eta oratu ninduten» (Ps. 118.) edo Isaia'k esaten ziona: «eta orain, Jauna, gure Aita zu zera, gu ordea loa: gure egilea zu, eta gu guziok zure eskuz egiñak.» Gorputz eta anima, biok eman dizkigu Jaunak. ¿Zergatik ez biokin agur egin.

Ala egin zuten Noe ta bere etxeakoak kutxatik osasunarekin ateratzean; ala, Abraam'ek iru aingeruen itxuran Jauna agertzean; ala Moise'k aldi askotan, bein Jaungoiko berak oñetakoak ere kentzeko esanik ala ere; ala Lege Zafeko siñistun guziak, bai Lege Befikoak ere ta ala beti... eta zergatik ez...?

Jaungoikoak eztula gure agurketa oien beařik?

Bai guk ordea. Iñargiak izan al lezake argirik eguzkia gabe? edo luřak eman al lezake laborerik eta lufean izan al liteke bizitzarik eguzkia kendu ezkeroz? Guk gutxiago izan giñezake egun argirik edo ondasun apurik Jaungoiko gabe. ¿Ezta ba, bidezkoa izango gure esker ona ta bereganako menpetasuna erakustea?

Jaunak nai du: zertarako erakutsi zien Jesus'ek bereai otoitz egiten eta zertarako agindu zien ain maiz egiteko?

Beařezkoa da lagunarteko agurketa ere

Gizon bakoitza ezetik gizatalde guzia ere Jaungoikoarena da. Efi ta efidi guztien Jauna ta naita-naiezko Jabea Ber-bera da. Semeak aitari ta mutilak (mořoiak) nagusiei bezala efiak beren buruzagiei ta efidiak beren efegeai lotsa, itzala, begiramendu, menpetasuna zor diote ta ematen ere bai.

Gizon bakoitzak bakarka dioten itzala ta ekartzen dioten lotsa ezta naikotzat idukitzen. Efidi osoak egiten dizkiote beren agufaldiak, beren menpetasunezko agerbideak eta beren jaiak.

Bidezkoa, zor dana ta beařezkoa da, ba, Jaungoikoarekin ere beste oñenbeste egitea. Jaungoikoak ez digu bakarka bear degun laguntza ta ondasuna bakarik ematen; baizik baita lagunartekoa ere.

Ortaz eskefak emateko, bearko deguna eskatzeko ta bereganako gure menpetasuna adirazteko beařezkoa da geroztik lagunartean, efi osoak egiten duan agurketa ere. Agurketa ori Jaungoiko berak adirazi zion Moise'ri zer gixez, noiz ta nola nai zuan ematea. Ta agurketa ori lur guzian eman zezaioren beti, Jesus'ek azken Aparian sortu zuan bere Apaizgo befia.

Bidegabekeri aundia litzeke, beraz, agurketa agirikoa edo lagunartekoa ez eman nai izatea.

Intza'r Damaso An. O. M. Cap.

GOIZEKO OTOITZA

Goizean otoitzikan
Egiten eztuenak
Eztu onik izango
Egun artan guzian;
Arekin eztijoa
Aingeru Zaintzalea,
Negárez ta atsekabez
Esaten dio onela:
«Ai! nik utzi bear aut,
Irekin ezin joan,
Ezin iri lagundu



Ire galdu-bidetan,
Ezin aut poz-arazi
Ire atsekabetan.
Ez badek otoitzikan
Egiten, ezin diat
Izan ire Zaintzale.
Atoř, ator atzera,
Belauniko jaři ta
Otoitzik egin gabe
Ez etxetik atera.»


AŘATS OTOITZA


Ezkila batek gau erdian
Ots egin zuen bein batean;
İlgiaren dizdizean
Auř bat lotatik esnatu zan.
Auřa izutzen da; ezkilak ozen
«Atoř, atorkit» deitu zuen;
Auřa jeiki zan ta ezkilak
Beti ator'ka ziarduen.
Etxetik irten ta badoa.....



«Ai ene! nora ote noa?...»
Eliz-atera arin-arin
Auřak bear du lasteř egin.
Ezkila ixildu zan orduan
Ta Aingeru batek esan zuan:
«Otoitz egizu orain, auřa;
Bart ařatsean etzatean
Otoitzik egin etzenuan.

H. Bone; Urtsuya'k euskeratua





UR kaxkar onetako naigabe ta zoritxarrik ez ditu gure Jaungoiko onak egin, baizik pekatuak: pekatua ta deabru gaiztoa dira gaitz guzien iturria. Baña safi esan oi-da; «Jaungoikoaren eskuetatik zoritxar guziak datofzkigu.» Eta esate ori gezurra ez dala, nere aufekoan nion.

Korapilo ori askatzeko

entzun efi batean gertatutako ipuiña, eta ipuiñaren bidez, egiaren mamia zeofek zere eskuetan jasoko dezu.

Txomin eta Martintxu

bezelako umerik, aiiñ onik beintzat, efi osoan ez zan, eria koxkoftua izan afen. Biok garai batean jaiokak eta auzokoak ziran, eta bion burutxoetan ezagueraren argia piztu baño askoz lenagotik aiskide-aiskideak, eta, geiago dana, aiskidetasunean bezelaxe biotz-garbitasunean ere kidekoak. Efiko emparantzan jolasean biok ikusi oi-nitunean, amaika bidef nere afean esana: «Ofa bi aingerutxo! Bizitzako itxaso nastuan bat-batetan saftzen diranean zer izango ote dira? Elduko ote dira, bufuka gaitzaren-ondoren garaile, beste aldeko ondaritza atsegingafiara!!!

Biok lenengo Jaunaftzea egin zuten egun zoragafian aldendu nintzan efi artatik. Geroztik aien befirik ez nuan izan, eta urteak juan urteak etofi, bat ezagutu besteaz aztu, bi aingerutxo aietaz, ain begikoak zitzaizkidan ume zoragafi aietaz, osoro aztu nintzan. Eta ez da afitzeko gauza: geienok, urtearen buruan baso bateko edo besteko zugaitzeetan (arboletan) egin genituan maitasun-kabietaz aztu oi-gera, eta bizitzaren bide-zakafeko elofi eta arantzeetan negafez agian, utzi genituen bizitza-puskaz ere, umeak giñala ufatuta bazteftutako soñeko zafaz ainbat, ez gera askotan oroitzen. Orixe da egia, egi zofoitza izan-afen.

Andik amabosten bat uftera, Donostia'ko gaxo-etxe batera joan beara izan nuan. Nere ango eginkizuna beteta etxerontz abiatzera nijoala, egun afitan gaxo-etxean il ziran bi gazteen befi eman zidaten.

—«Nongoak ziran?», galdetu nion befi ura eman zidatenai.

—S'ekoak. (Bafkatu, irakurle idixkidea, efiaren egizko izenik esan nai ez ba-dizut, zuri ofegatik bost ajola zaitzu-ta).

Galdezka galdezka bi gazte aien eriotza edefa jakin nuan, eta neri ta zuri ere ajola zaigun gertaeraren jakiñan gañean jafi niñuten. Neri pozgafia

izan zitzaidan ziñez, eta zuri ere noski alaxe izango zaitzulakoan nago.

Bi gazteok gaxotasun berberak jan zituan, biriketako miñak: biok gela batean eta egun berean il ziran. Batek aingerutxoia omen zirudian ta ibai ef-



LEKAROT'ko IKASTETXEKO MUTIKO BATZUEK
LEGATE'KO GURUTZEPEAN—1924'ko Oñilaren 1'an.

(Fot. Aleg.)


tzean udabeñiko eguzkiak musuka iriki oi-duan arosatxo txuria baño garbia-
goa zala bere biotza, diote. Bataiatzekoan Jainkoak jantzi zion janzki garbi
edera, iñoiz ez omen zuan ufatu, noski. Bere lenengo Jaunaftzea egin zuan
ezkeroztik igandero-igandero airtutzen zuan Jauna, eta amabots urte-ezke-
roztik, ia egunero. Argatik aingerutxoia zirudian eta argatikan bere gaxo-
tasun luzearen naigabeetan goruntz begiak jaso oi-zituan Jaunari eskefak-
egiñaz.

(Jafaituko)

Jauregi'tar Luis Apaiza



ESUS'en BIOTZARI



(Donostia'r J. And. Abak ereskidetua)

Orok

Je - sus - en Bi - otz San - tu Gu - ga - tik o -

dol us - tu - a; Zer - of - en mai - ta - sun - su - a Gu - re

(Batzuek)

ba - fu - an piz - tu. Bur - ni - az i - di - ki - rik

Or zau - de Bi - otz mai - te - a, Gu or sar - tze - ko a - te - a

Be - ti da - go za - ba - lik; Zu - ga - na le - ya - tu - rik

El - du ge - ra go - go - tsu; Zer - of - en mai - ta - sun su - a


Gu - re ba - fu - an piz - tu.

geld

Nekepean lertuak
Gabiltza gizor: gaxoak,
Begian negar-malkoak,
Biotzak uratuak;
Baña Zuk gure miñak
Arinduko dituzu:
Zeroñen eta.

Jesus, zure Biotza
Argiz daukazu betea;
Ilunpetan da gurea,
Elurá bezin otza;
Zuganako bidea
Erakutsi zaiguzu:
Zeroñen eta.

Prantzisko donearen uztea



ITA Prantzisko Donea, Asis'ko salerosle aberats Pedro Bernardon deituaren eta Andre Pika jaieratsuaren seme nagusia, txiki-txikitatik izan zan oso biotz onekoa, argia, sutsua, alaia, atsegiña, zuzena, elizkoia, garbia, efukitsua, beartsu zale aundia.

Asisko Ikastetxerik onenean latin eta beste oi zan guzia efaztasun aundian ikasi ondoan; Prantzisko, oraindik amalau urtekoa zanean, bere aitaren salerosletzan sartu zan, aitaren lagun bezela, ta urte batzuetan saleroslea izan zan; baña beti oso biotz onekoa, bakoitziari berea emateko zuzena.

Egun batean, Prantziskok 24 urte zituan, Done Damian Elizako Kristo Gurutzetuaren itz au aditu zuan: *Prantzisko, zoaz, nere etxea beritzera, erortzen dago-ta.*


Prantziskok orduan Kristoganako maitasun aundia somatu zuan bere biotzean; eta Kristo Gurutzetuaren agindua zintzo betetzeko asmoa artu zuan. Gero, berealaxe, bere sakelean zeukan diru guzia Done Damiango

Apaizari eman zion, Kristo Gurutzetuari argi bat gau ta egun jartzeko. Ta gero berealaxe etxera jo, bere dendako oialik edefenak eta bere zaldia artu, guziak Foliñon saldu, ta artutako diru guzia Done Damiango Apaiz berari eraman zion, Eliza befitzeko; ta bera antxe egoteko. baimena eskatu zion. Apaizak ordea etzion Prantziskori diru ura artu; baña bai bera an egoteko baimena eman. Prantziskok orduan bere sakel dirua Elizako leio zulo batera bota zuan; eta etzuan geiago bere etxera joan nai izan.

Pedro Bernardonek au jakitean, afiturik, Done Damianera jo zuan, bere semea artu ta etxera eramateko asmoaz. Baña Prantziskok aitari iges egin zion, Eliza ondoko zulo batean bere burua ezkutatuaz. Apaizak orduan, Prantziskok Elizako leio zulora bota zuan sakel dirua artu ta Pedro Bernardori eman zion; eta au orduan bere etxera biurtu zan, zerbait paketuta.

Prantzisko zulo artan ilabeteen egon ondoan, otoitz egiten eta bere burua ilduratzan, bere amak ixilik bialitako janarietatik pixka bat bakañik janda; gero, oso bestiruditurik, jainkozko gizon bat bezela, efira joan zan, eta Zeruko aberastasun aundiak eta lufeko ezer-eztasuna erakusten asi zan. Bere eritafak, orduan, ain bestiruditurik ikustean, zoro pañagañitza artu zuten, len *Gazteen Eregetzat* ainbeste txalotu zutenak ere, ta pafeka, txistu-

ka, ojuka, zalaparta aundian erabiltzen asi ziran; batzuk luña, autsa ta lokatza ere berari arpegira bota, ta beste olako zerak egiten zizkiotela. Bera ordea beti ixil-ixilik eta otzan zegoan bildots bat bezela. Pedro Bernardon'ek kaleko zalaparta aditu ta bere semeagatik zala jakitean, oso asafe, ara jo, bere semea gogor artu, ostikoka etxera eramán, giltzape ilun batean sartu,



ta katez lotu zuan, txori burua, lotsagaría, ondatzalea zala-ta, befiz buru onekoa egin artean, antxe egon bearko zuala esanaz.

Andik egun batzuetara, Pedro Bernardonek kanpora joan beafa izan zuan. Eta orduan Andre Pikak, erukiturik, eta bere seme onen bataio egunean Aingeruak esandakoa «*Aur au aundia izango da Jaunaren begien aurrean*» gogoan eukirik, eta bere seme onen biziera befia Jaunaren gogokoa izango zalakoan, Prantziskori askatasun osoa eman zion, eta baita ere dirua, nai zuana egiteko. Prantziskok orduan Jaungoikoari ta bere amari, bere aska-

tasunagatik, eskefak eman ondoan, Done Damianera befiz jo zuan, lengo bi-zitza egitera.

Pedro Bernardonek au jakitean, oso asafe, Andre Pika oso gogor artu ondoan, Done Damianera jo zuan, bere semea menderatu, edo erbesteratuko zuala esanaz. Prantziskok orduan etzion bere aitari iges egin, lengo aldian bezela; baizik Zeruko indafez indarturik, esan zion: «Ni ez naiz geiago etxera joango. Ni orain Jaungoikoaren mendekoa naiz eta gertu nago Jaungoikoagatik nekerik aundienak eramateko. Nik ez daukat orain lufeko neke guzien bildufik.» Pedro Bernardon'ek orduan ezagutu zuan, etzuala bere semea menderatuko; ta Epaileagana jo, ta oni esan zion, bere semea txoriburu, lotsa-gafia, ondatzailea zala, ta ezin zuala menderatu ta bide onera ekafi, ta legez ondoregabetu ta erbesteratzea nai zuala. Epaileak orduan Prantziskori agindua biali zion, ordu jakiñean bere aufera joateko. Baña Prantziskok bere aitar- en lana izango zala igefirik, erantzun zuan: «Ni orain Jaungoikoaren mendekoa naiz. Nik ez det orain Jaungoikoa baño beste jaberik eta epailerik. Nik ez det agindu ori egingo.» Epaileak orduan Prantziskori pakean utzi zion. Baña Pedro Bernardonek etzion bere semeari pakean utzi nai, ta Gotzaiagana (Obispoagana) jo zuan, bere semeari deitu, ta bere diru guzia emateko agintzeko, esatera. Gotzaiak orduan gai au bere eskuetan artuta, Prantziskori agindua biali zion, ordu jakiñerako bere aufera joateko. Ta Prantziskok Gotzaiaren agindua gogoz aditu ta zintzo bete zuan, Gotzai- a Jaungoikoaren ordezkua zalako. Gotzaiak jaritako ordu jakiñerako, Pedro Bernardon eta beste lagun batzuk ere Gotzaiaren afean arkitzen ziran.

Gotzaiak Prantziskori guzien afean afera ona egin eta oso maiteki esan zion, baldin Jaungoikoaren mendeko zintzoa bazan, bere diru guzia ai- tari emateko. Prantziskok orduan Gotzaiari erantzun zion: «Jauna, ez baka- rik nere diru guzia, baizik baita ere nere jantzia.» Ta, berealaxe, aldamene- ko gela batera jo, bere jantzia kendu ta besoetan artu, lafugofian len lekura biurtu, ta, guzien afean, bere diru guzia ta jantzia aitar- en oñetara bota zi- tuan, ots sendoaz esanaz: *Orain arte aita deitu zaitut; baña emendik au- rera bakañik esango det: Aita gurea, zeruetan zaudena.*

¡Ona emen Prantzisko Donearen uztea! Uzte afigafia, entzungabea, zazpi gizaldi auetan margolariak gogotik margotu, bertsolariak abestu, itzal- dilariak goratua!

Uzte afigafi ta entzungabe au ikusi zuten guziak (Pedro Bernardon izan ezik) afiturik eta maitezko negafez arturik zeuden bitartean, Gotzaiak, gisa berean afiturik eta negafez urturik, Prantzisko bere gañeko soñekoaz estali, maiteki laztandu, Jaungoikoaren mendeko egiazkotzat ezagutu, ta bere ba- besean artu zuan. Gero befiz, besteak kanpora joatean, bere mofoi baten so- ñekoa Prantziskori eman, eta bere laguntza agindu zion.

Gero, Prantzisko Gotzaiaren etxetik garailari irtenda, alegiñean saiatu zan Jaungoikoaren naia egiten, Jaungoikoa goratu ta gizonai zerubidea era- kusten.

Aita Eskoriatza



IZUGARIZKO ERIOTZETIK ATERATZEN DA «IRU AGUR-MARI»EN BIDEZ

(AZKENA)

18..ko uria, oso itzaltsua zan. Udazkeneko euri ugariakin, oraindik txafagoa.—Ostoak ari ziran erortzen, txori kantariak bero bila zijoazen. One-lako eguraldi ilunakin, nork daki gazte arek oyan-erdian izain zituan gogorazioak? Gañera, bidea galdurik omen zebilan: Gizajoa! Eldu zan gaua. Bidea galduta, etzuan txabol bat ere bilatzen lo egiteko. Goserik eta lef egiñik, zugatz zabal baten ondoan etzan zan. Baño luña bustia zegon, eta gañetik ere ur tantak zetozkion. Ezin loak artuz, befiz ibili zan nondik barña etzekiala, pizti izugarien bildufez. Ibili ta ibili, noizpait ikusi zuan urun argi bat. Aratu zan bereala, baño ez zalantzik edo dudarik gabe. Azkenik eldu zan, bakafdadean arkitzen zan etxe nabari artara. Ataria jo orduko, pozik idiki zioten; jana eta edana eman ere bai. Zeñen pozik jan zuan janari bero ura!

Bidazti gazte au gure Prantzisko kaskarin ura zan. Ikastetxetik atera ondoan, beařez ikasi zuan, bizitzeko lan egin beař dala. Ofengatik, salostetxe batean sartuta lan egin ta egin; azkenik, etxe artako bidazte edo biajante egin zuten: ara zergatik zabiñen Ipaf-Amerika guzitik bařna, eta oyan artan galdua.

Ikus dezagun zer gertatu zitzayon oyaneko etxe artan.

Afaritxoa artu orduko, bere gauzak ongi ipiñi eta, gela bat eskatu zuan. Eman zioten, baño oso ilun eta txafa. Len ere, etxe artako gauzak biotz-ikarra ematen bazioten; baño dena iduripena besterik etzala ta, etzan egin zan. Bereala oroitu zan «Iru Agur Mariak» etzituala esan. Lef egiña zegolako, uzteko egondun zan; baño agindutako otoitza zelako, jeiki ta, belauñiko asten du otoitza.

Erdi loan, otoitz laburtxo ura egiten ari zan bitartean, aditzen du bat-batean, ikaraturik, ots aundi bat. Oatzearen gañera gauza aundi bat erori da. Irazekitzen du argia, eta ekusten du afiturik saizulo batetik, zur aundi bat bota dutela, ayen ustez, bere gañera. Lapuf-etxe batean zegoan. Jantzi zan nola nai, eta au egin bezin lastef, ezagutu zuan norbait eldu zitzayola gelara.

Esku bakotxean efebolber bana zuala, jafi zan lapufen zai. Ayek uste zuten nunbait, zur ark erdi ila utzi zuala gutxinez gure gazte ura oatzean. Eldu ziran bada senaf-emazteak, bat aizkoraz, bestea laban aundi batez, Prantzisko iltzera. Baño aguro joan ziran andik igesi, eri zegola uste zutena, ain bizkořki prestaturik ikusirik. Orduan, Prantzisko, bi armak erakusten zizkiela, galdegin zien nun zan bidea. Eta toki zabal eta ageri bateraño, etzien utzi etxera itzultzea.

Ařisku artatik atera bezin lastef, oroitu zan Ikastetxeko Nausi-ordeak eman zion aolkuaz. Bizi guzian eskeřak eman zizkion Zeruko Amari, eta iraun zuan «Iru Agur Marien» otoitzean.


Albert Zemp (Ameriketako Apaiza)

A. I. M. A.



«Amatxo maite?

Aitatxore bai»



ANTON ziñezko Kristau da: ezta nola-naikua bere eguneroko lana izaten.

Goizian goiz jaiki, otoitz alditxo egin eta etxe inguruko soroetako lanari ekiten dio. Orduan datorkionian eguadiako zakotiarekin burni ola'ra txintxo joaten da.

Labe zaitzalea delako izerdi-patsetan bere burua ikusi bea' izaten du. Pozik ordea, Jaungoikuari goizetik eskeñi diozkalako, eta grazi santutzalearekin biotza apaindua eukiaz zerurako irabazten duala dakielako.

Gañera atsegingafia izerdi uraxen beretzat izango ezta, ba, bere emaztiarentzat eta Jaungoikuak eman dion Leontxo'rentzat eguneroko ogia irabazten die ta?

Eguneroko lan orduak igaro ondorean, bai pozik etxeratzea dala.

Bere lagunak ardoteagirakuan «An'ñon txopera-bat artzera ator» bein ba'ño geyagotan esan diote, bañan An'ñonek belafirik ez ordea oyentzat.

Ardotegian utziko lituken diru apurtxoak, igandian bere emaztiarekin eta semetxoarekin bostetako bat edo aparti-merendua egiteko naiago ditu gorde.

Etxera txuxen-txuxenian sartzen da ta... Leontxo aita ikusi orduko itxas-ten zayo lepotik.

Ai'ñak maite du semetxoa eta emaztiak zerbait prejitzen dion bitartian artzen du Leontxo belaunetan eta aingerutxoak etziten du bere burua aitatxoren biotzian.

Zazpi urte beterik dauzka Leontxok eta eskolara joaten asia da.

—Amatxo, zion, orain eztala egun asko, Leontxok: aitatxo ona da geo... aitatxoren besoetan eztet ezeren bildufik.

—Ta amatxo maite eztezu?...

Atoz nere magalera, maite ori.

—Badakizu, erantzun zion umeak, maite zai'ñudalako ikastetxetik ateratzean txintxo-txintxo etortzen naizela.

Amatxo, zu beti etxian zaude, aitatxo ez ordia eta... muxu emanaz: aitatxo, esan zion, aunditzean ni're zuri laguntzera joango naiz.

Leontxo: aitatxo maite dezu ona delako eta bere belaunetan zoritxara-ren bildufik eztatukazu. Aitatxoren eta amatxoren magalean Jesusek ere maite zai'ñula ikasi dezu.

Jesus Nazaretkua zu bezelako mutiltxoak maite zituna ¿non bizi dan badakizu?

Sagrariuan: zure biotza prestatzen ari zera lendabiziko aldian Jesus zure biotzian artzeko. Egunik edefen-edefena etofi zaizu.

Emendik aufera, maite ofek nai al dezu, zer egin bea dezun, nik esatia?

Eskolatik etxeratzen aita oraindik lantegian eta ama etxeko lanetan ari diran bitartian sartu-atera bat elizan egitera joan zaitetz eta Jesus on-onari esayozu:

Nere Jesus maitia; biotz-biotzetik maite zaitut. Aitatxok eta amatxok maite naute: Zuk ere maitatu itzatzu eta lagundu zayezu beren lanetan.

Au esan eta zuaz Leontxo maite ori, zure etxera eta amatxori muxu eder batekin eramayozu ofela Jesus on-onaren ongina eta aitatxo etxera etortzian itxatxi zaitetz bere lepotik zure muxu atsegiñarekin Jesusen ontasunak berari emateko...

Oyartzuna O. M. Cap.

OLANDA'TIK

DE STILLE ONGANG

Gauetzko ibilaldi ixila



EN ere *Zeruko Argiak* katolikoen oitura onen befia eman du. ¡Oitura edefa ta olandar katolikoen sinismena argi ta garbi erakusten duana! «De stille Omgang» ibilaldi ixila deitzen diote ta aurten ere egin dute joan dan Epailan, 22 ta 23 egunen arteko gauean.

Gau ori Amsterdam'en igaro zuan atzeritar edo kanpotar, ofenbeste gizon, iya 50.000, gauaz. ixilitz ta kalez-kale ikusi zituanean, bildurtu ezipazan ere, asko arituko zan noski.

Antziñako oitura da. 1881 g. urtean asi ziran ibilaldi au egiten katolikoak. Gauza guztietan gertatzen dan bezela, katoliko batzuk, oso gutxi atera ziran 1881-ko Epailaren gau batean lenengo ibilaldia egitera. Nor oartu kale bafena igaro zan gizon talde txiki artaz? Inor ez noski. Gaur Utrecht, Haarlem, La Haya, Rotterdam, Nimega ta eun kilometro ingurutik biltzen dira katolikoak Amsterdam urira.

Zertarako ofenbeste gizon? Aldareko Sakramentu txit deunari dioten sinismen bizia erakusteko. 1545'g. urtean suak Hostia santua ikutu etzuanetik, Amsterdam'i «Alatz edo milagroaren Uria» deitzen zaio Holanda guzian. Protestanteak oraindik Holandaren jabeak etziranean, urtero prozezio txit edefaz gogoratzin zuten milagro ori, baño protestanteak Holandaz jabetu ziranetik, legeak ez dute prozesiorik egiteko baimenik ematen. Ala ere lege oyek ez dezakeke kalez kale ta ixilik ibiltzea eragotzi, batez ere gauaz, kaletan inor ez dabilenean.

Ibilaldia luzea izaten da ta goizeko ordu bitan Kalvestraat deritzaion ta Amsterdam'en erdian dagon kale eder zabalean asten da; Eregiñaren jauregi auretik

igarotzen diranean, bakoitzak egegiña ta Holandaren aldez otoitz egiten du; Nieuvebrug'era eltzen diranean, itxasoari begira afantzalienen aldez otoitz egiten dute ta azkenean Elizaren aldez Langebrug'en.

Ibilaldia zazpiak aldera bukatzen danean, talde bakoitza bere elizara joaten da, Jauna artu ta meza entzuter.

Ibilaldi ontara gizonetakoak bakarik etortzen dira ta goizean gosalduta ondo-rean, etzaie urian gelditzea zilegi kanpotafai; ofegatik esan ditek: Amsterdam esnatu orduko, uritik kanpoan dirala jai ontara etofi diran guziak.

Izpafringi guziak, katolikoak ez diranak ere, begi onakin ikusi ta asko goratu dituzte aurten ere ibilaldi ori egin duten katolikoak. ¡Ofen zintzo ta elizkoiak ikusi zituzten! Diotenez 50.000 bildu dira aurten. Zergatik ofenbeste? Askok uste dutenez, bertan dagon Eukaristi-Batzafrak sutu ta berotuta dauzkalako holandaf katolikoak. Batzafr aurretik olako sua erakusten dutenean, zer ez dute egingo katoliko bikaiñ oyek batzafr egunetan alderdi guziko katolikoak beren apaiz ta gotzai agurgafiakin Amsterdam'en ikusten dituztenean?

ONDO IRABAZIA

Italia'ko kolonietako ministroa Tripoli'tik itzuli danean, Kaputxinoen Generalari idatzi dio efegeak Massaia Kardenala «Italia'ko Izafa» izena dun kolonietako Orden berriaren zalduna egin duala. Massaia, Kardenal kaputxinoak 35 urte igaro zituan Etiopia'n ta XIII'g. Leon'ek Kardenal egin zuan. Afrika'tik itzuli zanean, Humberto efegeak ere gurutze bat eskeñi zion, baño etzion artu. Massaia 1889'g. urtean il zan.

POLONIA'KO APAIZAK

Latefi Elkañtuetan (Estados Unidos) dauden apaiz poloniarak beren hostgafr batzafr egin dute Filadelfia'n. Poloniarfen siñismena gordetzeko egin bear dan lanaz itzegin dute. 50 urte oyetan poloniar asko joan dira Amerika'ra ta naiz beartsuak izan, alegiñak egiten dituzte ikastetxe ta eliza bat izateko. Urte oyetan iya 800 eliza jaso dituzte ta 1.100 apaiz dauzkate oyetan; 600 ikastetxe egin dituzte ta oyetan 350.000 ume biltzen dira. Jaungoikoak gorde dezala poloniarfen siñismena.

LAU INDITAÑ AITA SANTUARENGANA

Palestina'ra joateko Epailan atera da New-York'tik peregrinazioa ta bertan Osaga tribu'ko lau inditañ omen dijoaz. Besteakin batean lau inditañak Aita Santua ikusiko dute. Lenengo aldia da olako inditañak beren jazkerakin Palestina ta Vaticano'ra dijoazela.

ERESIA (MUSIKA) EUKARISTI-BATZAÑAN

Van Rossu, Aita Santuaren Ordezkoak Amsterdam'go jolas-zelaian emango duen mezan gregorianoa abestuko dute Utrecht, Haarlem ta Bois-le Duc'o apaizgaiak, ikastetxe katolikoan Anaiak lagun dituztela. Meza abestuko dute Amsterdam'go ikastetxe katolikoetako gaztetxoak, 3000'k diotenez, Aita De Gest O.P. zuzendari edo direttore dutela. Batzafr itxitzeko emango dan bedeinkazioan abestutzeko 1200 abeslari bilduko dira, 700 gizon ta 500 gaztetxo. Prozezioan «Rex Clementissime» kantatuko da ta batzafr aldi guzien aurretik *Adoremus*.

